

# MARIA ABELDI ORDUÑA PLANTXADORIA

**Maria Abeldirekin barriketan izan garie-  
la esaten badogu, balitteke inork gutxik  
jakittia zeinikin jardun dogun, baiña Maria  
Plantxadoria gehixenori ezaguna egingo  
xatzue. Umeretz baserrixan hazi, Eulojio**

**Maleta zanaren tabernan neskatillatan  
lana egin, makiñatxo bat urtian batian eta  
bestian kriada ibilli ondoren, azkenian,  
ume-umetatik gustokua izan eben ofiziu-  
gatik ezaguna izan da Oñatin.**

**- Noiz ekin zotzan lan horri?**

Eztakitt, beti gustau izan xat plan-  
txan egittia, baiña ikasi Donostian ikasi  
neben eta harrezkerō makinatxo bat  
urtian jardun dot horretan.

**- Plantxan ikastera fan ziñan  
Donostiaraiño?**

Bai, zera; urte askuan kriada ibilli  
nintzan batian eta bestian, Bartzelonan,  
Bilbon, Palma de Mallorcan, Donostian.  
Nundik hots egin, ni haraxe. Eta orduan  
izan neben ikasteko aukeria.

**- Kriada egon ziñan etxian ikasi  
zeben?**

Kriada-denboran ikasi neben, baiña  
ez kriada-etxian; plantxadora batekin  
ikasi neben; han faten giñan hiru andra  
ikastera pozik baiño pozixago.

**- Etxeko plantxia zure lana izango  
zan orduan...**

Ikasten niharduen bittartian ez; etxe-  
koandriak erropia gertu ifintten oskun  
plantxadoriari eruateko, baiña nik, eruan  
biharrian, kamarara jaso eta neuk plan-  
txaitten neben izkutuan, hainbestetxerai-  
ño gustaitten xaten! Kriada lagunak  
baeukain horren barri, baiña etxekoan-  
driak ez. Gero, ikasi nebenian, ez eben  
beste inora eruan gura izaten.

**- Donostian be etzan ba etxe asko  
egongo ikasteko?**

Bakarra ezagutu neben nik.



*Anparok ederki asko luziitten zittuan  
amak enkañonautako bolantedun  
soiñekuak. Argazkixan bere aittare-  
kin.*

**- Eta Oñatin noiztik?**

Kriadatzaiairi itxi, Oñatira etorri eta  
ezkondu egin nintzan, eta handik gutxira  
etxian, Kale zaharrian, jarri neben neuk  
plantxalekua.

**- Plantxan bakarrik ala garbittu be  
egitten zeben?**

Nere erreziobotan "Maria Abeldi,  
Lavado y Planchado de todo tipo de  
ropas" jarten eben. Danetik egitten neben  
nik. Batzutan erropia garbittuta ekarten  
nostain, baiña nik nere konformidadera-  
ko berriz be garbittu egitten neben; almi-  
doi-puntua emuteko eta bihar dan  
moduan geraketako oso inportantia zan  
ondo garbittuta egotia.

**- Ze erropa klase ekarten otzuein?**

Danetik, ubeko erropak, alkondarak,  
mantelerixak, kurtiñak, komunioko soi-  
ñekuak, txaketak, kuelluak, zer ez!

**- Ze kuello?**

Orduan alkondara zurixen kuelluak  
gogor eta brillante eruatiak kategorixia  
emuten eben, eta baegozen "postañezko"  
kuello sueltuak be. Nik kuello illarak

**H**ainbeste gus-  
tau izan xat  
plantxia, lana  
zanik be ene-  
bela pentsai-  
tten. Beti pozik  
eta kantuan  
ibiltten nintzan  
erropa eta  
plantxa artian.

## ARANBYRY

**Pintura orokorrean  
Garbidenda  
Paper margotuak**

**Koadroetako marko denda  
Kale Barria, 47. Tfnoa: 78 19 99 OÑATI**



Olakua, 16 1º D. Oñati.  
Tfnoa: 78 21 64

**VNZVRRVNZAGA  
MİNTEGIĀK  
Mendiko landareak  
Podaketak  
Garbiketak  
Plantazioak  
Gabon zuhaitzak**



eukitten nittuan mahai gañian ondo almidonaua eta brilluakin.

**- Brillua?**

Bai, oso inportantia zan hori. Plantxia be espeziala izaten zan, muturra gorutz okertuta eukana. Eta han ibiltten nintzan ni *ttirriki-ttirriki-ttirriki*, brillo ederra atara arte. Etzan samurra izaten, ze tente geratu bihar ziran, baiña ez lepuan traba egitteko moduan.

**- Plantxa asko zeukan?**

Hamairu bat banittuan nik txapagaiñian beroketakuak. Han eukitten nittuan hiru edo lau batera txandaka ebalteko; bata hotzittu ahala bestia hartzen neben.

**- Entzun dogu "enkañonauak" egitten oso ona ziñala, baiña zer da hori?**

Enkañonau bolantiak egitten ziran, kurtiña haundi horrein bolantiak, komunioko soñekuenak eta holakuak. Hori egitteko burdiñazko tenaza luze batzuk ebalten ziran. Tenazok txapako zuluana bero-bero egin eta *tzin-tzin* pazientzia guztiarekin bolante osua pasau bihar izaten zan.

**- Ikatzeko plantxarik ebalten zeben?**

Ez, beti txapagaiñian beroketakuakin ibilli naiz ni; plantxa haundi astun batzuk. Azken aldian elektrikoren bat be euki neben.

**- Plantxadora bakarria ziñan?**

Oñatin hasi nitzanian, baeguen beste bat, baiña laister itxi otzan. Lan faltarik ezto sekula izan. Goizetik gabera han ibiltten nintzan plantxa artian, batzutan domeketan be bai bentanak itxitta. Baiña oso gustora! Eztakituzue zelako satisfazi-




*Mariak bere 82 urterekin eztau galdu betiko umoria eta animua. Bistiagatik ezpalitz, orain be lanian jardungo leke.*

ñua emuten dauen hainbeste lan hartu eta gero norberak egindako lanak ikustia!

**- Zeintzuk eruaten ebein erropia plantxadoriana?**

Hoteletatik mantelerixak eta ubeko erropak segidu ekarten nostain eta herri-

*ergalarekin batera etorri ziren gona plisauok eta plantxa bihar haundirik ez eukain erropak. Baiña horreik etxat sekula gustau izan. Igualekuak ziran lehengo almidonauak!*



ko aberatsak, barriz, danetik. Hemen suertaitzen ziran biajantiak be alkondarak ekarten zittuain txukuntakotako, eta gero alabia bialketan neben partittera. Komunio denporan eta, soñeko asko ekarten ebein enkañonauak egitteko.

Aberats etxetako etxe-koandrak konbidauak eukañian eta, etorten ziran eta esaten nostain: "Maria, bisi-tak dakot" eta nik "zenbat"; "ba hainbeste", eta hola banekixen hainbesteko uberropa gertatu bihar nebela.

**- Zenbat kobraitzen zeben?**

Hori ezta kot goguan, baiña zintzo pagaitten nostain. Hala be akordaitten naiz bateri egindako lanak ezin kobrauta ibilli nintzala eta azkenian txarrikumia ekarri eskula. Politta txarrikumia. Lazkanoko ittoian hazi geben. *Potintxo* kuttau!

**- Izena eta dana eukan hala?**

Bai horixe, Arboledara ataraten geben pasiora eta inguruko neskatilla danak jolasian ibiltten ziran harekin. Eta handik *ttoko-ttoko* etxera etorten zan. Azkenian Antzuolan saldu geben.

**- Noiz arte jardun zeben?**

Ba 1962 ingurura arte, 50 urterekin *Piletan* hasi nintzan eta. Dana dala, ordurako lana gutxiketana hasitta eguen: batetik ixa plantxarik bihar ez eben tergala agertu zan, neri bapebe gustaitten etxatena, eta bestetik tintorerixa eta labadora automatikuak be hasi ziran eta.

**- Piletako lana oso diferentia izango zan?**

Bai, baiña betik pentsau izan dot bizimodua atareteko lana sendo egin biharra daguela. Eta nik, Jangoikuari eskerrak, osasuna izan dot neure izardi-xarekin aurrera urteteko

**ERREKADISTAK**



**DONOSTIA** S. Lorenzo, Kandido 15 behea. Orueta Tel.: 78 34 75

**BILBO** S. Lorenzo, Jesus 17 behea. Urmeneta Tel.: 78 16 96

**GASTEIZ** S. Lorenzo, 60 Karlos Tel.: 78 26 86 Vidal

**BAITA ERE JASOTZEN DITUZTE ERREKADUAK:**

**HARITZA LIBURUDENDA**  
Kale Zaharra, 4. Tfnoa: 78 23 96